



UDABERRILEKUAK

GORBEIAN EGONALDIA LH4TIK DBH2RA BITARTEKO IKASLEENTZAT

Eskolaz Kanpoko Ekintzen Batzordeak aisialdi eskaintza prestatu du udaberriko oporretako astegunetarako, apirilaren 11tik 14ra.

Gorbeia parke naturaleko txoko ezin ederrago batean, Arrabako aterpean, lau eguneko egonaldia eskaintzen dugu Lehen Hezkuntzako 4. mailatik (edo 9 urte beteta) DBHko 2. mailara bitarteko ikasleentzat.

IZEN EMATEA

Izen ematea martxoaren 7ra arte burutu ahal izango da ondorengo formularioan:

izena eman 

Ekintza burutzeko gutxienez 10 partaide batu beharko dira eta gehienez 24ko taldea osatuko da. Kuotaren zenbatekoa partaide kopuruaren arabera ezarriko da: 15 partaidera arte batuz gero 250 euro eta 16 baino gehiago izanez gero, 210 euro. Kasu bietan kuota ordainketa bakarrean edo bitan banatuta ordaindu ahal izango da.

Kuotak barne dauka egonaldiko ostatua eta mantenua pentsio osoan (lehen eguneko bazkaria salbu) Gorbeiako aterpetxean, aseguruia, programatutako jarduerak eta hauek burutzeko materiala bai eta ekipaiaren garraioa ere.

BAJA IRIZPIDEAK

Martxoaren 24a (hau barne) baino lehen jakinarazitako bajei ez zaie kobratuko.



Martxoaren 25etik (hau barne) aurrera ondorengo baja irizpideak aplikatuko dira:

-%90a ez da kobratuko (hau da, %10a kobratuko da) ondorengo kasuetan, beti ere, agiri baten bidez frogatuta: A) gaixotasun edo istripua, medikuaren froga-agiria behar da. B) Joatea eragozten duen ustekabeko edo beharrian larria, beti ere justifikatuta badago.

-Baja aurreko arrazoiengatik ez bada, kuotaren %80a kobratuko da.

INFORMAZIO-BILERA

Martxoaren 29an ekintzan izena eman duten familiekin informazio bilera burutuko dugu 17:00etan Ikastolako Areto Nagusian.

EGONALDIRAKO PROGRAMA PROPOSAMENA

Gorbeiake parke naturala ezagutzeko aukera paregabea, mendiko teknikak era atseginean lantzeko, gure on-

dare naturalean errespetuz jarduteko, aisialdi osasungarri eta aktiboa sustatzeko, lagun artean eskaraz bizitzeko...

APIRILAREN 11



- **URIGOITI**n elkartu (bertara nor bere kabuz)
- **Aterpetxera joan.**
- Etxeko bazkaria
- Arraban orientazio praktikak, rapel praktikak, koba bisitatu....
- Afaldu
- Gaubela

APIRILAREN 12A



- **Gorbeiake gailurrera:** txondorren arrastoak, Zeanuriko nebera, **Arranbaltzako** koba, mapen irakurketa, norabideak, orientazioa.
- Bazkaria aterpetxean
- Arraban orientazio praktikak, rapel praktikak, koba bisitatu.... **Urratxa** koba.
- Itxinari buruzko bideoa.
- Afaldu
- Gaubela

APIRILAREN 13A



- **Mairulegorreta haitzulora** txangoa
- Piknik bazkaria
- Arraban orientazio praktikak, rapel praktikak, koba bisitatu....
- Afaldu
- Gaubela

APIRILAREN 14A



- **Itxina**
- Piknik bazkaria
- **PAGOMAKURRE**n elkartu eta etxera (nor bere kabuz)